

Ipuingilea

Koldo Izagirre

Euskaldunon Egunkaria, 1997-11-02: 4.

Berak maisuetarikotzat jotzen duen Horacio Quirogaren ipuingile perfektorearen arauetan maisuari fede izatea dugu aurrenekoa. Zorionez, Ugaldek ez zeukan euskal literaturaren eredu hartzeko moduko maisurik, eta izan balu ere zaila zukeen haren berri izatea, Euskal Herrian ume eta gaztetutakoan. Amerikan Poe, Txekhoy, Maupassant, Kipling eta latinoamerikarren tradizioan elikatu behar izan zuen beraz. Eta beharrik: erretorikarik gabe, zehatz, elementu formal apurrekin, mekanismo matxuragaitzak asmatzen dizkigu. Ezaugarri hauek izanik iduri luke idazle hotza izan behar zuela Ugaldek, gizakiari urrundua. Ez hurrik eman ere. Gizakiak dira bere protagonista, ez hizkuntza edo teknika bera. Ugaldek hastio du distira, sua ematen du. Eta irakurlea erre egiten da. Ipuin bihozbera bat irakurtzen ari zarela irriño bat egiten duzu, eta azkenean ausentziari buruzko parabola mingotsa irensten duzu; mantal urdin bat zintzilik dagoela eta usteko duzu Lizardik otarre hutsari egin zion poema haren antzeko errekreazio baten aurrean zaudela, baina lehen orrialdea irakurri orduko ohartzen zara ikara ematen duen zahardade batez ari zaizula, eta azkenean ekintza xume baina askatzaile batek mundu oso baten salaketa egiten dizu...

Bere lehen ipuin bilduma, *Iltzalleak* (1961), gerraondoari eta erresistentziari di eskainia; bigarrena, *Mantal Urdina* (1984), zahardadeari, bakardadeari oro har, borroka klandetinoan giroturiko bi ipuinekin batera, denak ere egileak oso bereak dituen gaiak. Bigarren liburu honetan, oso garatua eta landua aurrenekoaren aldean, ezaugarri tekniko nabarmen eta artifiziozko batez baliatzen da Ugalde *Erregetako izpiritu beltzarana* eta *Sugegorriak ilunpean zain* izeneko ipuinetan. Narratzailea hirugarren personatik lehen personara aldatzen da, etenik gabe, protagonistak berak hartzen duela kontakizunaren haria. Honek, ikuspuntuaren auintasunaz gain, halako zinezkotasun bat eransten dio narrazioari, irakurlea hurbilduz. Gerora, *Bihotza golkoan* (1990), sakondu egingen du teknika hau, aditz laguntzaileak ere errepikan aldatuz izen bereko ipuinean, arintasun handia lortuz, edo lehen persona hirugarrenarekin identifikatuz giro teluriko batean, *Gerrateko lehen kontaktua*. Eta Ugalderen saio teknikoak ariketa banalak ez direlako frogatzen, amets –edo idurikazioa– egiten duen haurrak asumitu, bere gain hartzen du, aitaren ekintza larria. Teknika esanahiaren zerbitzuan. Bere baliabide guztien jabe, betetasunean, ageri zaigu hirugarren liburuan, zazpi ipuin zein baino zein ederragotan fikzionatzen dizkigula bere gai nagusiak: bakardadea, zahartzarora, gerrateko oihartzunak egun, salatariak, zorotasuna...

Amerikarrei gaztelaniaz, euskaldunoi euskaraz Ugaldek: idazle bi, baina bihotz beretik. Hirugarren munduan bizimodua atera nahi dutenen epika isildua egin digu idazle latinoamerikarrak. Europako gizarte garatuago honetan baztertuak eta ahantziak direnen tragedia ezkutatua egin digu euskal idazleak. Eta euskal idazlea euskalduna ere baden

aldetik, bere herriak egin eta egiten dituen borroken berri ematen digu. Artea ararteko, helburua hitzaz haratago. Ipuinaren maisuen bezala.